

KONTROL MOZIOA

PORTUKO OSTALARITZA-ESTABLEZIMENDU BATEN SAILKAPENAREN INGURUAN UDALAK EMANDAKO EBAZPENA EZ BETETZEARI BURUZKOA

Ricardo Burutaran Ferré EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du, Portuko ostalaritza-establezimendu baten sailkapenaren inguruan Udalak emandako ebazpena ez betetzeari buruz, 2025eko apirilaren 10ean Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioa dela-eta.

JUSTIFIKAZIOA

2024ko maiatzaren 27an, Hirigintza Sostengagarriko eta Etxebizitzako zinegotzi ordezkariak ebazpen bat eman zuen, Zaharrean Bizi auzo-elkarteak Kaiko pasealekuko Kantina Kaia establezimendua taldez aldatu izana berrikusteko aurkeztu zuen eskaera ezesten zuena.

Zinegotzi ordezkariaren ebazpen horren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuen aipatutako auzo-elkarteak. Errekurtsoa Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiari bidali zitzaion, eta 285/2024 prozedura arrunt gisa erregistratu zen.

Udaleko zerbitzu juridikoek aurkeztutako demandari erantzuteko izapidean, prozedura eteteko eskatu zen, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen 54.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hori ikusita, 2025eko urtarrilaren 10ean, Hirigintza Sostengagarriko eta Etxebizitzako ordezkariaren agerraldia eskatu genuen.

Udaleko Zerbitzu Juridikoek egindako txosten juridikoak, talde-aldaketa hori aztertu ondoren, ohartarazi zuen Udaleko Hirigintza Sostengagarriko Zuzendaritzak berrikusi behar zuela baimena, Parte Zaharreko eta Portuko ostalaritza-establezimenduen arteko distantziak arautzen dituen udal-araudia betetzen ez zuela eta.

EH BILDU udal-taldeak eskatuta egindako agerraldian, Hirigintza Sostengagarriko eta Etxebizitzako zinegotzi ordezkariak iragarri zuen Udalak baliogabetu egingo zuela taldez aldatzeko lizentzia irregular hori, ostalaritza-establezimenduen arteko distantziak arautzen dituen ordenantzan xedatutakoa urratuz emana.

Horren arabera, Kantina Kaia establezimendua 1. taldekoa da eta ez 2. taldekoa. 1. taldeko establezimenduek ez dute lizentziarik alkohola emateko, eta ez dute lizentziarik sukaldea, labea edo plantxa izateko.

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1- Tel. 943481027 www.donostia.eu
20003 Donostia

EH Bildu talde politikoa

2025eko martxoaren 6an, erabaki zen eraginkortasunik gabekotzat jotzea establezimendua kudeatzen duen merkataritza-sozietateak eskatutako talde-aldaketaren jakinarazpena.

2025eko martxoaren 29an, UCOMeko agenteek 897/2025 Arau-hauste Akta egin zuten, establezimendu horrek alkohola ematen jarraitzen duela eta horretarako legezko gaitasunik ez duela egiaztatu ostean.

2025eko apirilaren 2an, Hirigintza Sostengagarriko eta Etxebizitzako zinegotzi ordezkariak neurri zuzentzaileen espedientea irekitzea erabaki zuen, eta 10 eguneko epea eman zion establezimenduari, alegazioak aurkezteko.

Igarotako epea gorabehera, aipatutako establezimenduak oraindik ez ditu udal-ebazpenak betetzen; hau da, oraindik ez da egokitu legez aitortuta duen taldera.

Hori dela eta, hauxe da nire **KONTROL MOZIOA**:

1.- Donostiako Udalbatzak udal-gobernuari eskatzen dio, Udalak berak ebatzitakoaren ildotik, Kaiko pasealekuan kokatuta dagoen "Kantina Kaia" establezimendua 1. taldera egokitzeke zuzenbidean bidezkoa dena agindu eta erabaki dezala, atzerapen gehiagorik gabe.

2.- Era berean, udal-gobernuari eskatzen zaio unean-unean ematen diren urratsen berri eman diezaiola Parte Zaharrean Bizi Auzo Elkarteari, espediente horretan interesduna baita.

Donostia, 2025eko ekainaren 20a

Izpta.: Ricardo Burutaran Ferré
EH BILDU udal taldeko zinegotzia